

ABENDUAK 1

"GAUR, INOIZ BAINO +, GIBari SO UZTARTURIK"



Egun on guztioi. Beste urte batzuetan bezala, aurten ere dei egin dizuegu elkarrekin oroitu eta ospatzera abenduaren 1a, "HIESaren aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna". Eskerrik asko hemen zaudeten guztioi, bizitzen ari garen bolada honen zamapean ere erakutsi duzuen konpromiso eta jardunarengatik. Behartuta gaude GIBa (Giza Immunoeskasiaren Birusa) bai kaletik bai erakundeetatik ikusaraztera eta horri erantzuna ematera. ONUSIDAK aurtengorako jaulki duen leloa hauxe dugu: "Mundu-mailako solidaritatea, partekaturiko ardura".

GIB eta HIESaren estatu-koordinakunde den CESIDAREN "Abenduak 1" Batzordean erabaki dugu apustu egitea, GIB/HIESari eman beharreko erantzunean atzeranzko urratsik ez egitearen premiari buruz kontzientziatzeko. Horretarako leloa: "Gaur, inoiz baino +, GIBari so uztarturik".

Osasun-krisi honetan ikusi ahal izan dugu nola gure erkidegoen eta sistema publikoen konpromisoa ezinbestekoa izan den COVID-19aren krisiagatik gorriak ikusi dituzten pertsonen lagundu ahal izateko. Aktibismoa eta solidaritatea giltzarri izan dira pandemia honi aurre egiteko eta mota ezberdin askotako sostengua emateko GIBdun izan eta beren egoera are gehiago larriagotu zaien pertsonen. Gure elkarteetatik ikusten ari gara artatzen ditugun pertsonengan nolako efektu suntsigarriak izaten ari den krisi hau.

Laguntza publikoak lortzeko zailtasuna eta eginiko konfinamenduak problema latzak izan dira pertsona guztientzat eta, batez ere, bazterketa eta/edo ahulezia sozialeko egoeran dauden pertsonentzat. Migranteak, sexu-langileak, droga-erabiltzaileak eta etxegabeak dira, besteak beste, oinarrizko baliabideen eskurapena kolokan eta murrizturik suertatu zaien kolektiboak, ospitale-farmaziarako joan-etorriari, lanari, elikadurari edo etxebizitzari dagokienez. Gainera, dauden egiturazko genero-desberdinkerien ondorioz, problema horiek areagotu egiten dira emakumeen kasuan, zeinak biztanleriaren erdia baino gehiago baikara.

Pandemia hau guztiok elkar harturik aurre egin beharreko erronka dugu. Osasungintza Publikoari iraganean eginiko murrizketek gaur erakusten dituzte beren txikizioak. Konfinamendu-aldietan zehar eta gaur egun ere, oinarrizko osasun-laguntzan zailtasunekin topo egin dute laguntza behar zuten pertsonak, GIB, sexu-tranmisiozko gaixotasunak edo sexu-osasunarekin zerikusia duten bestelako kontsultak, diagnostikoa edo prebentzio-bitartekoetarako irispidea izateari dagokienez.

Aurrerapen handia egin dugu, eta pauso muntadunak eman ditugu. Sexu-heziketa ardatz garrantzitsua izan da prebentzioa eta diagnostiko goiztiarra hobetzeko, batez ere pertsona gazteenei dagokienez. Jadanik oso hurbil gaude ONUSIDAREN 90-90-90etik. Iazko irailean prestazio publiko gisa ezarri zen PrEP delakoa, eta 2018an sinatu zen GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu Berdintasunaren aldeko Gizarte Ituna, halatan lorturik GIBa duten pertsonen funtzio publikoetan pairaturiko bazterkeria amaitzea.

Entitate hauetatik ahalegina areagotu dugu, gure erabiltzaile guztiak artatzea lortzeko; horregatik, ez dugu nahi atzerapausorik eman dadin GIB/HIESak bizitza nolabait ukitzen digun pertsona guztioi hainbeste denbora eta esfortzu kostatu zaizkigun lorpenetan.

Horregatik, GIB/HIESaren aurkako Borrokaren Nazioarteko Egunaren oroitzapenez, deklaratzeko eta gogorarazten dugu:

Gaur, inoiz baino +ago, ezin onartuzkoa zaigu pertsonarik ahulenak atzean geratzea. Horretarako, babes sozialeko bitartekoak sendotu behar dira, bermatze aldera baliabiderik gutxien dituzten pertsonen modua izan dezaten elikadura eta etxebizitza bezain premia oinarritzeko asetzeko.

Gaur, inoiz baino +, beharrezkoa da premia duten pertsona guztiei bermatzea GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuen diagnostikoa eskuratu ahal izatea. Diagnostiko goiztiarra eta tratamenduari goiz ekitea dira biderik onenak pertsonen osasuna babesteko eta kutsatzeak prebenitzeko. Detektaezina izateak esan nahi du transmitiezina dela.

Gaur, inoiz baino +, ezinbestekoa da lorpenak ziurtatzea eta aurrerapausoak ematen segitzea. Atzerapausorik ezin dugu eman.

Gaur, inoiz baino +, beharra duten pertsona guztiei bermatu behar zaie PrEP - Esposizio Aurreko Profilaxia eskuratu ahal izatea, eskurapen hori oztopatu gabe eta beren burua zaintzeko prebentzio-metodoric egokiena horixe dutela erabaki duten pertsonak sailkatzen edo estigmatizatzen ibili gabe.

Gaur, inoiz baino +, elkarreok erakutsi dugu ezinbestekoak garela GIBari erantzuteko ekintza jarraitu bat antolatuzko, biztanleria ahulei laguntza emanez, bestelako baliabiderik izan ez denean.

Gaur, inoiz baino +, arreta soziosanitario banakaturik bermatu behar zaie GIBdun diren pertsonen, norberaren kasuaren arabera.

Gaur, inoiz baino +, osasungintza-sistema indartu beharra dago, murrizketengatik eta pandemiak bai profesionalen bai osasungintza-sektoreari berari ere ekarri dizkien kalteengatik sistema horrek hainbesteko astindua eta tratatu latza jasan ondoren.

Gaur, inoiz baino +, funtsezkoa da Ongizatearen Estatua sendotzea. Osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta zaharrentzako egoitza-zerbitzuak bermatuta egon behar dira, baldintza seguru eta duinetan. Inor atzean ez gelditzeko bermerik onena kalitatezko zerbitzu publikoen bitartezko ekitatea, justizia soziala eta giza eskubideen aldepena dira.

Asko da orain arte lortu duguna, eta ildo horretan lan egiten jarraitu nahi eta behar dugu, hemen gauden guztiongatik eta, bereziki, GIBarekin bizi diren pertsonengatik eta haien familia eta adiskideengatik.

Gaur oso bereziki gogoan eduki nahi ditugu gurekin jada ez dauden aktibista horiek, zeinei zor baitiegu, gutxien-gutxien ere, gure lan, laguntza eta ahaleginarekin GIBaren kontrolean aurrera egiten jarraitzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Hiesaren Aurkako Nafarroako batzorde Hiritarra, Sare Elkarreka, Abiatze, Iaiak eta Kattalingorri elkarteak